



Lectio divina

1. IRAKURGAIA: Zer dio testuak?

2. GOGOETA: Zer dio niretzat/guretzat testuak?

- ✓ Zeruko seinalaren bat erakusteko eskatu zioten Jesusi fariseuek eta saduzeuek. Jesus Jainkoaren Semea dela eta gurekin dela sinesteko mirarizko seinaleak behar al ditugu guk ere? Non oinarritzen dugu geure sinesmena: konfiantzan ala Jainkoari eskatzen dizkiogun seinaleetan?
- ✓ Historian presente da Jainkoa, gertaeretan, gure bizitzan..., eta hor ari da. Errealitateari eta bizitzari sinesmen-begiz begiratzen al diet? Ohartzen al naiz Jainkoak hor dabilela eguneroko bizitzan? Zein zantzu edo seinale zehatzetan antzematen diot Jainkoak hemen dela eta hemen ari dela?
- ✓ Jainkoaren erreinua erabat noiz gertatuko den jakin nahi izaten dugu; baina Jesusek dio ez dagoela gure esku Aita erabakitako garaiak eta uneak zein diren jakitea. Tentsio hau baretasunez eta itxaropenez bizi al dut? Jainkoagan jartzen dut konfiantza ala neuk esaten diot zer eta noiz egin behar duen?
- ✓ Aldian aldiko zantzuak itxaropen-seinale bihurtu beharrekoak dira. Otoitz egitean, hartzen al dut tarterik zantzu horiei antzemateko eta itxaropen-seinale bihurtzeko? Irakurtzen al dut maiz Jainkoaren Hitzaz, zantzu horiek argitzeko eta eraldatzeko?

3. OTOITZA: Testu honetan oinarriturik, zer esangogenioke Jainkoari?

Eska diezaiozun Jaunari, ireki diezazkigula begiak eta bihotza aldian aldiko zantzuei antzemateko. «Entzun, Jauna, dei degizut! Erruki nitaz eta erantzun! Bihotzak esaten dit: 'Ea, bila ezazu Jaunaren aurpegia'. Zure aurpegiaren bila nator, bai, Jauna. Ez gorde niri zeure aurègia!» (Sal 27 [26], 7-9a).

4. KONPROMISOA: Zer sortzen du nigan/gugan testu honek?

Aldian aldiko zantzuen diszernimenduan sakontzeko hiru jarduera aipatzen ditu Aita Santuak: isiltasuna, gogoeta eta otoitza. Gure konpromisoa honako hau izan daiteke: eguna bukatzean, tarteren bat hartzea otoitz egiteko eta, otoitz horretan, egunean zehar Jainkoaren presentzia noiz sumatu dugun jabetzeko. Non eta noiz suma ditzaket Jainkoaren urratsak?

JAINKOA
JARTZEN
DUT NITZE
ITXAROPENA

Hitzarekin
topatuz

7. fitxa, Mt 16, 1-4

EZ AL ZARETE GAUZA
GARAI HAUEN
SEINALEEI IGARTZEKO?



Donostiako
Gotzaindegia
Obispado de
San Sebastián



DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA
DIOCESI DE SAN SEBASTIÁN

URTEURRISMA
ANNIVERSARIO



Mt 16, 1-4

¹Fariseu eta saduzearrek Jesusengana etorri eta Jainkoarengandiko seinale bat erakusteko eskatu zioten azpikeriaz, bera nola harrapatuko. ²Baina Jesus-ek erantzun zien: «Ilunabarrean, esan ohi duzue: “Arrats gorri, bihar eguzki”; ³eta goizean: “Goiz gorri, arrats euri”. Badakizue zeruaren itxurari igartzen, eta ez zarete gauza garai hauen seinaleei igartzeko. ⁴Seinale eske ari da gizaldi gaizto eta desleial hau, baina ez zaio emango seinalerik, Jonas profetarena besterik». Eta, haiek bertan utzirik, alde egin zuen.



Textua ulertzeko

- ✓ Bere parabola eta mirarietan Jesus-ek bere irakaspena eskaini dien arren, fariseuek begiak itxirik jarraitzen dute; ezin dute ulertu nor den Jesus Horregatik, seinalea eskatzen diotenean, Jonasen seinalea aipatzen die, bere heriotza eta piztuera alegia. Hori izango da Jesusen argudio nagusia. Herriko buruzagiak ez baitira gauza Jesusen seinaleetan Jainkoaren Erreinua etorria dela ikusteko, Jesus-ek alde batera uzten ditu, bere irakaspena bereziki ikasle-taldeari eskaintzeko.
- ✓ Guk ere Jainkoari seinaleren bat, zantzuren bat, eskatzen diogu maiz, batez ere une zailetan. Gauzak guk nahi bezala gertatzen ez direnean edota gure fedea zalantzan jartzean, bere indar guztiz jarduteko eskatzen diogu Jainkoari. Jainkoa gure historian ari dela sentitu, ikusi, ukitu beharra dugu. «Jauna, hor baldin bazara, egin zerbait». Mirariren bat nahi izaten dugu askotan, geure fedea sendotzeko nahiz baiesteko. Baina Jonasek beste seinalerik ez dugula izango oroitarazten digu Jesus-ek. Horixe baita Jainkoak egindako miraririk handiena: bere Semearen piztuera. Gertakari horrek du sendotzen eta eraberritzen gure sinesmena. Apostoluen bizipena horixe da: «Egia da, Jesus piztu da!».
- ✓ Jesus beraren esaera erabiliz, «aldien zantzuak» deitzen die Vatikanoko II. Kontzilioak Jainkoaren Espiritua egiaz historia ari dela antzemateko zantzuei. Bai, gertaeretan, gure bizitzan... Jainkoa ari da; ez du alde egin. Fariseuek gertatzen zitzaizena gertatzen zaigu guri ere maiz: sinesmen txikikoak gare-lako, ez dugu ahalmenik errealitateari eta bizitzari fede-begiz begiratzeko.
- ✓ Aitaren erreinua iristen ari dela agirian jartzen duten hitzei eta egintzei antzemateko bereizmena, diszernimendua, egitera gonbidatzen gaitu Jesus-ek. Seinale horiek guztiak seinale bakarrean ikustera garamatza: «Jonasen seinale» misteriozuan. Hori eginez, eraldatu egiten du giza logika. Logika honek gizakiaren autoafirmazioa eta ahalmena besterik ez du aintzat hartzen. Honela zioen san Paulo apostoluak: «Juduan mirarizko seinale eske

dabiltza eta jentilak jakinduria bila; guk, berriz, Kristo gurutziltzatua predikatzen dugu, juduentzat onartezina eta jentilentzat zentzurik gabea dena » (1 Ko 1, 22-23).

- ✓ Kristok gainditu zuen, beste inork baino lehen, Jainkoaren erreinua etorria zela erakusteko munduko baliabideak erabiltzeko «tentaldia». Halaxe egin zuen, basamortuko tentaldietan hasi eta gurutzean josia zegoela burlaz egin zioten erronkaraino: «Jainkoaren Semea baldin bahaiz, jaitsi hadi gurutzetik». Jesus gurutziltzatuagan biltzen eta eraldatzen dira zantzuak, seinaleak: Jesus bera da «Jainkoaren zantzu», batez ere bere heriotza eta piztuaren misterioan. Jesus historian hor ari deneko zantzuei antzemateko, munduko handiusteak alde batera utzi behar dira eta Espiritua onartu «Espirituak, izan ere, dena aztertzen du, baita Jainkoaren barne-sakona ere » (1 Ko 2, 10).
- ✓ Jainkoaren erreinua bere betera noiz iritsiko den galdetuko bagenu, Apostoluei bezalaxe erantzungo liguke guri ere Jesus-ek: «Aitak bakarrik du hori erabakitzeko ahalmena, eta ez dago zuen esku zein aldi edo unetan gertatuko den jakitea» (Eg 1, 7). Guk ere Espirituaren indarra onar dezagula esaten digu Jesus-ek, beraren testigu izan gaitezen «Jerusalemen, Judea osoan, Samarian eta luraren bazterreraino» (Eg 1, 8).
- ✓ Aldien zantzuak nola gertatuko ziren Jainkoak aspalditik ezkutuan zeukan erabakia zen (Erm 16, 25; Ef 3, 9); gerora, historian agertu zen, eta Seme gurutziltzatu eta piztuagan egia bihurtu (1 P 1, 19-21). Kristoren ikasleek onartu eta interpretatu egiten dute, Espirituak argiturik eta indarturik, erreinu hori behin betiko noiz gertatuko den zain daudelarik, erne eta ekintzaile, etorriko baita historia bere betera eramatera.
- ✓ Jubileu-urte honetan Frantzisko Aita Santuak hau oroitarazten digu: Jainkoaren graziak ematen digun itxaropena hartzeaz batera, aldien zantzuetan aurkitzera ere deituak garela. Horretako, mundu den on guztia ikusten saiatu beharra dugu, ez dezagun uste izan gaiztakeriak eta gogorkeriak menderatuak gaudela. Hari honetan, gizakiaren bihotzak, Jainkoaren presentzia salbatzailearen beharra duen gizakiaren bihotzak zein irrika duen erakusten duten zantzuak, aldien zantzuak, itxaropen seinale bihurtu behar ditugu.
- ✓ Etorkizunari itxaropenez begiratzeak hau esan nahi du: bizitzari gogoberotasunez begiratu nahi diogula eta besteekin partekatu.
- ✓ Mirar el futuro con esperanza también equivale a tener en cuenta una visión de la vida llena de entusiasmo para compartir con los demás.

